



Urretxuko udala



URRETXUKO UDALERRIAN
BIDAIARIEN HIRI-GARRAIORAKO
ZERBITZU PUBLIKOAREN
KONTRATAZIOA, PUBLIZITATERIK
GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU
BIDEZ, ARAUTUKO DUTEN
KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUA

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS QUE HAN DE REGIR LA CONTRATACIÓN MEDIANTE EL PROCEDIMIENTO NEGOCIADO SIN PUBLICIDAD, DEL CONTRATO DEL SERVICIO PÚBLICO DE TRANSPORTE URBANO DE VIAJEROS EN EL TERMINO MUNICIPAL DE URRETXU

I.- Kontratuaren helburua

Zerbitzu kontratu honen helburua da Urretxuko udalerrian bidaiaien hiri-garraiorako zerbitzu publikoa ematea, honako lan hauek egin beharko direlarik:

- Mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako mikrobus batekin emango da zerbitzua. Mikrobusak 20 bidaiai inguru eramateko gaitasuna izango du eta baloratuko da pertsona gehiago zutik eramateko ahalmena.

I.- Objeto del contrato.

El objeto de este contrato de servicios consiste en la prestación de servicio público de transporte urbano de viajeros en el término municipal de Urretxu, debiéndose prestar las siguientes labores:

- El servicio se prestará con un microbús adaptado para el transporte de personas de movilidad reducida y tendrá una capacidad para alrededor de 20 personas sentadas. Se valorará la capacidad del vehículo para llevar un mayor número de personas a pie.

II.- Eman beharreko zerbitzuaren ezaugarriak

1. IBILGAILUA:

Mugikortasun urriko pertsonak garraiatzeko egokituta dagoen ibilgailu bat jarri beharko du lizitatzaleak eta 20 pertsona inguruko eserita eramateko ahalmena izan beharko du.

Zerbitzua ematen hasi aurretik, Udalak ikusi eta onartu beharko du ibilgailua. Edozein ibilgailuren aldaketa Udalak onartu beharko du aldez aurretik.

Ibilgailu egokituarrekin zerbitzua ematea galarazten duen edozein matxura edo gorabehera gertatuz gero, horren berri eman beharko da 24 ordu baino lehen,

II.- Características del servicio a realizar.

1. VEHÍCULO:

El licitador deberá aportar un vehículo adaptado con una capacidad alrededor de 20 personas sentadas.

El vehículo deberá ser reconocido y aprobado por el Ayuntamiento antes de entrar en servicio. Cualquier cambio de vehículo deberá ser autorizado previamente por el Ayuntamiento.

En caso de avería o cualquier otra contingencia que imposibilite prestar el servicio con el vehículo adaptado, se deberá comunicar la incidencia en un plazo no superior a 24 horas y se



Urretxuko udala



eta ondorengo ezaugarri hauek dituen beste ibilgailu bat jarri beharko da berehala:

- Zerbitzua emateko egoera onean egongo da, funtzionamendu eta erosotasun aldetik eta zerbitzua eskaintzen duen ibilgailuaren antzeko ezaugarriak izango ditu.
- Se encontrará en perfecto estado de funcionamiento y confortabilidad para la realización del servicio y tendrá similares características al vehículo utilizado para la prestación del servicio.

Bidaиarien derrigorrezko aseguru poliza eta erantzukizun zibila babesteko poliza izan beharko ditu lizitatzaleak. Zehazki, aseguru hauek izan beharko ditu:

- Zerbitzuan erabiltzen dituen autobusentzako Autoen Nahitaezko Asegurua (ANA).

- Zerbitzuari adskribatutako autobusentzako Bidaиarien Nahitaezko Asegurua (BNA):

- Autobus-flotarentzako Bidaиarien Nahitaezko Aseguruaren polizak, indarrean dagoen legeriak exijitzen duen estaldurarekin.
- Erantzukizun zibil eta penaleko asegurua: gutxienez 600.000 €-ko berme-muga izango duena eta kontratuari berezkoak zaizkion arriskuak estaliko dituena; bereziki, hirugarren goei eragindako kalteengatik izan dezakeen erantzukizun zibilarenak, dela empresa esleipenduneko pertsonalaren, hango enplegatuen eta haren mendeko langile iraunkor eta noizean behingoen egintzen ondorioz, dela erabiltzen dituzten makinen eta ekipamenduen ondorioz, edo dela esleipenaren xedeko zerbitzua ematen duen bitartean egindako lanaren ondorioz.

Kontratistak aseguru hori kontratatzeark ez du bere erantzukizunetatik liberatzen; beraz, obligatua geratzen da aseguru-

procederá a su inmediata sustitución por un vehículo de las siguientes características:

- El licitador deberá tener las correspondientes pólizas de seguro obligatorio de viajeros y cobertura de responsabilidad civil. En concreto, deberá disponer de los siguientes seguros:

- Seguro Obligatorio de Automóviles (SOA) de los autobuses empleados en el servicio.

- Seguro Obligatorio de Viajeros (SOV) de los autobuses adscritos al servicio:

- Pólizas Seguro Obligatorio Viajeros (SOV) para la flota de autobuses con la cobertura exigida por la legislación en vigor.

- Seguro de responsabilidad civil y penal: con un límite mínimo de garantía de 600.000€, que cubra los riesgos inherentes al contrato y en especial a la responsabilidad civil en que pueda incurrir por los daños causados a terceras personas y derivados de actos del personal de la empresa adjudicataria, de sus empleados y dependientes permanentes u occasionales, de la maquinaria y equipo que emplee, así como, a consecuencia de los trabajos realizados durante la prestación del servicio objeto de la adjudicación.

La contratación de este seguro por el contratista, no le libera de sus responsabilidades por lo que queda obligado a asumir los incumplimientos que la compañía de seguros tenga



Urretxuko udala



konpainiak ezarriak dituen ez-betetzeak bere gain hartzena.

Edonola ere, esleipendunak egingo die aurre kalte-ordainei, kasuan kasuko frankiziaren zenbatekora arte eta aseguru-polizetan ezartzen diren mugak gainditzen dituzten kopuruan; baita ere horietan estaltzen ez diren ondasun eta arriskuetan gertatzen direnak. Esleipendunak, urtero, aipatutako aseguru horiei dagozkien polizen benetako kopiak edo konpultsatua aurkeztu beharko ditu.

Ibilgailuak Auzobusa zerbitzuaren identifikazio korporatiboa eraman beharko du, eta kontratuak indarrean dirauen bitartean egoera onean egon beharko du.

2. KONTROL SISTEMA:

Enpresa esleipenduna izango da zerbitzuaren kalitatearen arduradun zuzena, zerbitzuaren alderdi guztiak etengabe kontrolatz, egoki deritzon sistema erabiliz.

Esleipendunak etengabe zainduko du zerbitzuaren kalitatea, honako hauetan: puntualtasuna, ibilgailuen kanko eta barruko garbitasuna, erabiltzaileekiko harremanetan edukaziona, eskabideak edo kexak erantzuterakoan azkartasuna, geltokietan informazioa, segurtasuna, erosotasuna, e.a...

Horrez gain, Udalak etengabe ikusku eta zainduko du kontratatutako zerbitzua, zerbitzuen prestazioa eskakizun operatiboak asetzeko eta kalitezko helburuak betetzeko baldintzetan dagoela koordinatzeko, kontrolatzeko eta, oro har, egiazatzeko eta ziurtatzeko.

Kontzesioaren baldintza teknikoak betetzen direla ikusku ahal izango du

establecidos.

En todo caso serán soportados por el adjudicatario los daños y perjuicios en la cuantía de la/s correspondiente/s franquicia/s y en lo que superen los límites que se establezcan en las distintas pólizas de seguro; así como los bienes y riesgos no cubiertos en las mismas. Anualmente el adjudicatario deberá presentar copias auténticas o compulsadas de las pólizas correspondientes a dichos seguros.

El vehículo deberá incorporar la identificación corporativa del servicio Auzobusa, que deberá permanecer durante toda la vigencia del contrato en correcto estado.

2. SISTEMA DE CONTROL:

La empresa adjudicataria será directamente responsable de la calidad del servicio, controlando continuamente todos los aspectos con él relacionados por el sistema que considere oportuno.

El adjudicatario velará de forma permanente por la calidad del servicio, entendiendo como tal la puntualidad, limpieza exterior e interior de los vehículos, educación en el trato con los usuarios, prontitud en la respuesta a las peticiones o quejas, información en las paradas, seguridad, comodidad, etc.

Además el servicio contratado, estará sometido permanentemente a la inspección y vigilancia del Ayuntamiento para coordinar, controlar y en general verificar y asegurar que la prestación de los servicios esté en condiciones de satisfacer las exigencias operativas y los objetivos de calidad de los servicios.

El Ayuntamiento podrá inspeccionar el cumplimiento de las condiciones técnicas



Urretxuko udala

Udalak, kontratuari atxikitako ibilgailuen eta instalazio finkoen egoerari dagokionez nahiz zerbitzuaren gorabeherei dagokienez (ibilbidea, ordutegia, tarifak, e.a...).

Kalitate inkestak egiteko ahalmena izango du Udalak.

Esleipendunak hilero aurkeztu beharko du zerbitzua erabili duten bidaiai kopuruari buruzko txosten bat. Halaber, kontratu honen zerbitzuarekin lotuta, Udalak eskatzen dizkion txosten eta azterlanak prestatu beharko ditu.

3. EGOKITZAPEN URBANISTIKOA ETA MARKESINAK

Udalak hartuko ditu bere gain egin beharreko egokitzapen urbanistikoaren gastuak: geltokiak, seinaleztapen horizontala eta bertikala, e.a...

Urretxuko Udala arduratuko da geralekuak behar bezala identifikatuta egon daitesen.

4. IBILBIDEA

Urretxuko hirigunea eta auzoak lotuko dituen ibilbide bat proposatzen da.

Oinarrizko ibilbidea eta zerbitzuaren maiztasuna lehenengo eranskinean ageria dena da.

5. ZERBITZUAREN MAILA

Zerbitzua urte osoan emango da, abuztuan izan ezik, astelehenetik ostiralera bitartean eta larunbat goizetan.

Larunbat arratsaldeetan, igandeetan eta jaiegunetan ez da zerbitzurik izango.



del contrato, tanto en lo referente al estado de los vehículos e instalaciones fijas adscritas a la concesión como a las circunstancias del servicio (itinerario, horarios, tarifas, etc.).

El Ayuntamiento se reserva la facultad de realizar las oportunas encuestas de calidad.

El adjudicatario queda obligado a entregar mensualmente un informe sobre el número de viajeros que ha utilizado el servicio. Asimismo, deberá preparar cuantos informes y estudios relacionados con el servicio de esta contrata le sean solicitados por el Ayuntamiento.

3. ACONDICIONAMIENTO URBANÍSTICO Y MARQUESINAS.

El Ayuntamiento correrá con los gastos de acondicionamiento urbanístico que se requiera: paradas, señalización horizontal y vertical, etc.

El Ayuntamiento de Urretxu se encargará de que los puntos de parada estén debidamente identificados.

4. ITINERARIO

Se propone un itinerario que conecte los barrios con el centro urbano de Urretxu.

El recorrido básico y las frecuencias del servicio serán las indicadas en el anexo I.

5. NIVEL DE SERVICIO

El servicio se desarrollará los días laborables de lunes a viernes y sábados por la mañana de todo el año, excluido el mes de agosto.

Sábados tarde, domingo y festivos no



Urretxuko udala



Gabon, Gabon Zahar, herriko jaietan eta horrelako egun berezietan aldaketa puntualak izan litezke, jaien ezaugarrien arabera.

6. TARIFAK

Urretxuko Udalak ezarriko ditu zerbitzuaren erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak, Udalaren ordenantza fiskalaren bitartez.

Udalak erabakiko du une oro tarifaren ordaintza nola egin. Nolanahi ere, esleipendunari ez zaio exijituko tarifikobratzeko sistema bereziak ezartzea.

7. ZERBITZUAREN ALDAKETAK

Interes publikoko arrazoiak tarteko, Udalak aldatu eta murriztu egin ditzake esleitutako zerbitzuaren ezaugarriak.

Ez dira kontratu-aldaaketatzat hartuko obrengatik eta kalean egiten diren beste ekitaldi batzuengatik, edo noizbehinkako beste arrazoi batzuengatik izandako kalemozketen ondorioz gertatutako ibilbide aldaketa puntualak edo aldi batekoak.

Edozein aldaketa dela ere, Udalak baimendu egin beharko du aldez aurretik, baita ere zerbitzua berehala eman behar delako esleipendunak presazko neurriak hartu behar dituenean, eta horrela bada, berehala eman beharko zaio neurri horien berri Udalari.

Esleipendunak zerbitzuaren aldaketarako proposamenak egin ahal izango ditu, beti ere zerbitzua hobetzeko edo horren kostua murrizteko bidetik, Udalak azter ditzan.

habrá servicio.

En días especiales como nochebuena, nochevieja, fiestas patronales... podrían producirse modificaciones puntuales en base a las características de las fiestas.

6. TARIFAS

Las correspondientes tarifas a abonar por los usuarios del servicio serán fijados por el Ayuntamiento de Urretxu, a través de la ordenanza fiscal del Ayuntamiento.

El Ayuntamiento determinará en todo momento la forma en que se realice el abono de la tarifa. En cualquier caso, al adjudicatario no se le exigirá la implantación de sistemas especiales para realizar el cobro de las mismas.

7. MODIFICACIONES DEL SERVICIO

El Ayuntamiento podrá modificar y reducir por razones de interés público, las características de servicio adjudicado.

No tendrán la consideración de modificación de contrato las alteraciones temporales o puntuales de itinerario por cortes de calle a causas de obras y diferentes tipos de actos en la vía pública, u otras circunstancias de carácter estacional.

Todo tipo de modificación deberá ser previamente autorizada por el Ayuntamiento, sin perjuicio de aquellas situaciones en que la inmediatez para la prestación del servicio aconseje que el adjudicatario adopte medidas urgentes, en cuyo caso éstas deberán ser inmediatamente comunicadas al Ayuntamiento.

El adjudicatario podrá realizar propuestas de modificación del servicio, encaminadas a mejorarlo o a reducir el



Urretxuko udala



III.- Kontratuaren aurrekontua

Lizitazioaren gehiengo prezioa urtean 24.200 €-koa izango da, BEZ barne.

costo del mismo para su estudio por parte del Ayuntamiento.

IV.- Iraupen epea

Urtebeteko epea ezartzen da, iraupen bereko beste bi alditarako luza daitekeena.

III.- Presupuesto del contrato.

El precio máximo de licitación será de 24.200 €/anuales IVA incluido.

IV.- Plazo de duración.

Se establece un plazo de duración de un año prorrogable por otros dos períodos de la misma duración.



Urretxuko udala



1. ERANSKINA. IBILBIDEA ETA ORDUTEGIA / ANEXO I. ITINERARIO Y HORARIO

Joaneko ibilbidea / Ida

Iparragirre 15	Grupo Santa Barbara	Basagasti	Mundo Mejor	Labeaga 51	Joxe Mari Lasa Plaza
7:40	7:42	7:43	7:44	7:46	7:48
9:40	9:42	9:43	9:44	9:46	9:48
10:40	10:42	10:43	10:44	10:46	10:48
11:40	11:42	11:43	11:44	11:46	11:48

Itzulerako ibilbidea / Vuelta

Labeaga 51	Joxe Mari Lasa	Mundo Mejor	Santa Barbara aterpetxe (bajo demanda)	Instituto Iparragirre	Basagasti	Grupo Santa Barbara	Iparragirre 15
13:10	13:12	13:13		-	13:15	13:16	13:18
15:30	15:32	15:33		15:35	15:36	15:37	15:39
18:00	18:02	18:03		-	18:05	18:06	18:08
20:00	20:02	20:03		-	20:05	20:06	20:08

Larunbat goizean / Sábados a la mañana

Joxe Mari Lasa	Labeaga 51	Aparicio Auzoa	Santa Barbara aterpetxe	Mundo Mejor	Basagasti	Grupo Santa Barbara	Iparragirre 15
12:20	12:21	12:23	12:29	12:31	12:32	12:33	12:37



Urretxuko udala

Joaneko ibilbidea (astelehenetik ostiralera) / Ida (de lunes a viernes):





Urretxuko udala

Itzulerako ibilbidea (astelehenetik ostiralera)/ Vuelta (de lunes a viernes):





Urretxuko udala

Larunbateko ibilbidea / Recorrido del sábado:

